

# Kontuak kontatzera

**I**RATZARTU zenean, dinosaurioa hantxe zegoen oraindik. Augusto Monterroso idazle guatemaldarra da, joan den urtean hila, baina literaturara maisu lez pasatu dena, dozena erdi bat liburu baino argitaratu ez badu ere. Eta, izan ere, bere ospean eraginik handiena izan zuena Dinosaurioa ipuin hori izan zen, literatura unibertsalaren kontakatarik laburrena, zazpi hitzetakoa baino ez. (Behin, norkbait hitz bat gehiago gaineratu zionean ipuinari, Titok -lagunek horrela deitzen zioten- esan zuen Tolstoiren nobela bihurtu ziotela).

Nostalgiko sentitzen zen Agustín Faus ikasia Elkarte Pirineozaleen IV Topaketetan (El Pueyo, 2003ko martxoa) komentatzen zuenean ezen gaur egun mendiari buruzko argitarapenak ugariak direla, baina mendiari buruzko literatura gutxi argitaratzen dela. Azkengabeak dira gidaliburuak eta mendi-irtenaldien gaineko liburuak, baina faltan botatzen dira fikziozko lanak: mendi-ametsak berotzen zituzten eleberri klasiko haiek, hain gustora berrirakurtzen genituen kontu haiek.

Pyrenaicak ere nahi du lagundu hutsune hori betetzen. Badakigu ez dela erreza. Ez da erreza ezta irtenaldi bat ondo kontatu edo ibilbide bat argi deskribatzea ere. Zailagoa da kondaira bat asmatzea. Gertaldi bat abiapuntu bezala hartzea. Edo iritsiera-puntu bezala. Edo, gertaldi horretan bailatuz, alboko erlazio bat eratzea. Irudimena behar

da horretarako. Paper zuriak ematen duen bildurra gainditu beharra dago. Eta testua laburragoa egitea zailagoa izaten da oraindik. Idazleek ondo dakite jakin laburpen-arietak zenbat kostatzen diren. Sufritu egiten da berrirakurtzean, laburtzean, hautatzean, leuntzean, moztean eta birmoztean.

Baina aurten Pyrenaicak berritzaile sentitzen gara eta hauxe da egiten dugun beste apustu bat. Aldizkari honen helburu garrantzitsuenetarikoa bat, argia eta baieztatua, da gure mendizaleen elkar-lanak bultzatzea. Beraz, berritua egin behar dugu proba artikulu monografikoen lehiaketarako urteroko bildeiarekin. Aurten gaia kontuak dira. Beharbada, ez dugu literatura zaletasun berririk aurkituko, eta ez dugu nahi ere. Baina agian norbait animatuko dugu barruan zeramatzen ideia batzuk konkretatzera eta paperaren gainean plasmatzera (hau da, ordenagailuan).

Erreztasunak emateko nolabait, oso joko-arau sinpleak erredaktatu ditugu. Agendan dituzue, ale honen azken orrian. Baina premiaz ibili beharko duzue zeren, asko falta dela ematen duen arren, denbora azkar pasatzen baita. Zera, bidaliezaguzue 2004ko ekainaren 30a baino lehenago "ipuin bat, bi eta sei orri artekoa, mendiaren munduarekin edo mendian burutzen diren ekintzekin erlazionatua". Behar bada, merezi izango du ahalegintzea.

---

---

# A contar cuentos

**C**UANDO despertó, el dinosaurio todavía estaba allí. Augusto Monterroso es un escritor guatemalteco que murió el año pasado pero ha pasado a la literatura como un maestro, a pesar de no haber publicado más de media docena de libros. Y lo que le hizo más famoso fue precisamente ese cuento de El dinosaurio, el relato más breve de la literatura universal, de sólo siete palabras. (Una vez que alguien le añadió equivocadamente una palabra más Tito, como le llamaban los amigos, dijo que se lo habían convertido en una novela de Tolstoi).

Se sentía nostálgico el veterano Agustín Faus en el IV Encuentro de Sociedades Pirineístas (El Pueyo, marzo de 2003) cuando comentaba que hoy en día abundan las publicaciones de montaña, pero se publica muy poca literatura de montaña. Hay un sinfín de topoguías y libros de expediciones pero se echan en falta las obras de ficción: aquellas novelas clásicas que calentaban los sueños montañeros, aquellos cuentos que releíamos con tanto gusto.

Pyrenaica quiere contribuir a cubrir este hueco. Ya sabemos que no es fácil. Ni siquiera es fácil contar bien una excursión, o describir con claridad un itinerario. Más difícil es inventar una historia. Tomar una anécdota que sirva de punto de partida. O de llegada. O que establezca una relación lateral. Hay que echarle imaginación. Hay que

vencer el terror de la página en blanco. E incluso hacerlo más corto es todavía más difícil. Los escritores saben bien lo que cuestan los ejercicios de condensación. Se sufre relejendo, resumiendo, seleccionando, puliendo, cortando y recortando.

Pero este año en Pyrenaica nos sentimos innovadores y ésta es otra de las apuestas que hacemos. Uno de los objetivos principales de la revista, explícito y confirmado, es fomentar las colaboraciones de nuestros montañeros. Así que probamos otra vez volver a la convocatoria anual del concurso de artículos monográficos. Este año el tema son los cuentos. Probablemente no vamos a descubrir vocaciones literarias, y tampoco lo pretendemos. Pero quizá sí animemos a alguien a concretar unas ideas que llevaba dentro y a plasmarlas en el papel (es decir, el ordenador).

Para dar facilidades de alguna forma, hemos redactado unas reglas de juego muy sencillas. Las tenéis en la Agenda, en la última página de esta revista. Pero hay que darse prisa porque, aunque parece que falta mucho, el tiempo pasa muy rápido. Se trata de que nos mandéis antes del 30 de junio de 2004 "un cuento, entre dos y seis páginas, relacionado con el mundo de la montaña o con las actividades que se realizan en ella". Quizá valga la pena intentarlo.

Txomin Uriarte